

Beste laguntza batzuk eskatu edo/eta eskuratu dira egintza bera egiteko:

Erakundea:

Dirulaguntzearen izena:

Eskatutako zenbatekoa:

Hartutako zenbatekoa:

Eta, horrela jasota geratu daiten eta bidezkoak diran ondorioak sortu daizan, aitormen hau izenpetzen dot.

Eskatzaileak **beren beregi BAIMENTZEN** dot Bermeoko Udala jarraian zehazten dan informazioa edo/eta agiriak eskuratzeko:

- Gizarte Segurantzegaz zorrik ez izatearen ziurtagiria.
- Ogasunagaz zorrik ez izatearen ziurtagiria.
- Beste erakunde batzuetan jarduera berbererako dirulaguntza eskaerea (Gorago zehaztutakoaren harira).
- Beste erakundeek jarduera berbera egiteko dirulaguntzea emotearen ebazpena (Gorago zehaztutakoaren harira).
- ...

Bermeon,

Izenpea

Jakinarazpena gazteleraz jaso nahi dot. Ezer adierazi ezean, Udalak erantzuna euskeraz emongo deutsu.

BERMEOKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskaria egiten dauen pertsona fisiko, juridiko, alkarte edo erakundearen identifikazioa eta helbide soziala, aldatu bada.
- Pertsona juridiko, alkarte edo erakundearen izaera juridikoa egiaztatzen daberen agiriak (estatutuen fotokopia konpultsatua, eta alkartea Eusko Jaurlaritzako Kirol Alkarteen Erregistroan, Alkarteen Erregistroan edo antzekoetan inskribatuta dagoala adierazten dauen egiaztagiria), aldaketarik egon bada.
- Ordezkaritzaren egiaztagiria eta ordezkarieren NANaren fotokopia, aldaketarik egon bada.
- Banku-kontuaren identifikazioa diru-laguntzea ordaintzeko, aldaketarik egon bada.
- Programearen laburpen fitxea, udalak emondako ereduaren arabera.
- Jarduera-programa edo memoria. Programa edo memoria horretan, zehaztasunez azalduko da edukia, helburua, egutegia, sarrera eta gastuen aurrekontua, eta bai dirulaguntzearen zenbateko osoa be. Horretarako, udalak emondako eredu bat beteko da.
- Indarrean dagozan legeek xedatzen dabezan zerga betebeharrak egunean daukazala ziurtatzen dauen agiria, Foru Ogasunak edo jagokanak bialduta, eta bai Gizarte Segurantzazagakoak be egunean daukazala ziurtatzen dauen agiria, administrazio eskumendunak emonda, ez bada udala baimendu beren beregi horreek eskuratzeko.
- Beste erakunde edo instituzio batzuetan jarduera berbererako dirulaguntza eskaerea egin bada eta/edo dirulaguntzarik hartu bada, ebazpenaren kopia edo, hala bajagoko, eskabidearen kopia, ez bada udala baimendu horreek eskuratzeko.
- 40.000 eurotik gorako obrak egiteko edo 15.000 eurotik gorako zerbitzuak edo horniketak egiteko dirulaguntzak eskatu ezker, eskaereagaz batera **lanak egiteko hiru aurrekontu** aurkeztuko dira. Eskatzaileak merkeena baztertu eta beste aurrekontu bat aukeratzen badau, horren arrazoiak txosten batean azaldu behar dauz.

Agiri honetan aitatutako dokumentu eta datuez gain, udalak, kasu bakotxa aztertzeko, eskatzaileari egoki deritxon beste edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izango deutso, aurkeztutako proiektua osotasunean baloratu ahal izateko.

Udalak **ofizioz** honeek lortu behar dauz:

- Erakundeak edo eskatzaileak eskariaren aurreko urtean egindako jardueri buruzko memoria (erakunde edo eskatzaile barrien kasuan, ez)
- Bermeoko Udalagaz zorrik ez izatearen ziurtagiria